

Ingurumena hobetzeko jarduerak

Gure ingurumen politikarekin eta gure jarduerari dagozkion ingurumen alderdi garrantzitsuenekin lotuta, EROSKIren lan ildoek etengabeko hobekuntza dute oinarri, eta gure helburu estrategikoekin bat egiten dute. Horietako asko jasota datoz 5. konpromisoan (kontsumo arduratsuagoa sustatzea), 6.ean (tokiko produktu gehiago eskaintzea) eta 10.ean (bizimodu osasungarriagoa eta jasangarriagoa erraztea).

Produktuak

EROSKIIn, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure konpromisoa partekatzen duten enpresa hornitzaile arduratsuekin lankidetzan aritzea garapen jasangarriaren alde, gure eskaintzan ingurumenaren faktorea sartzeko. Saiatzen gara ingurumen inpaktua txikitzen prozesu guztietan (ekoizpenaren sorburuan, dendako eragiketetan, eraldaketan eta manipulazio guztietan). Horrek esan nahi du: bultzatu egiten dugula tratamendu fitosanitarioak desagertzea, jasangarritasun ziurtagiriak lortzen ditugula gure arrandegietan, kontrolatu

Jatorri jasangarriaren ziurtagiria

Duela zenbait hamarkada hasi ginen lanean kontsumitzaileei alternatiba osasungarriagoak eta jasangarriagoak eskaintzeko. 50 urteotan hainbat mugarri egon dira, adibidez, 1989an, ozono geruzarako kaltegarriak diren CFC aerosolak erabiltzeari utzi genion; eta 2004az geroztik gure markako produktuek ez dute transgenikorik.

Ildo berean, duela zenbait urte gure produktuen jatorri jasangarria bermatzen duten zenbait ziurtagiri, etiketa eta marka ditugu. Horien artean Belle Natural eta EROSKI Natur markak gailentzen dira bereziki; horien produktu guztiek kanpoko ziurtagiria dute, modu naturalagoan eta ingurumena zainduz ekoitzi direla ziurtatzeko. Hala, marka horietako produktuek COSMOS Natural (ECOCERT) ziurtagiria daukate kosmetikoen kasuan, eta freskoek, besteak beste, Global G.A.P., MSC edo ekoizpen integratua.

Produktu ekologikoak

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren bidez ekoizitako elikagaiak eskaintzen ahalegintzen gara, ekoizpen eredu horrek ingurumen jardunbide onenak bermatzen dituelako. Eredu horretan, jatorri sintetikoko substantzia kimikoen eta gehigarri artifizialen erabilera baztertzeaz gain, biodibertsitatea eta natur baliabideen babesa eta animalien ongizatearekiko errespetua sustatzen dira. 2019an **ziurtagiri etiketa askotariko 2.140**

Hobekuntza ekintza horiek gure produkzio ibilbidearen zenbait etapari dagozkie. Hortaz, gure erakundetik kanpoko eragileei ere konpromisoa eskatzen diegu, gure ingurumen aztarna txikitzen lagundu badezakete, bederen. Jarduera-ildo horiek lau taldetan sailka daitezke: eskainitako produktuak; logistikako jarduerak; dendak eta haiek kudeaketa; eta kontsumitzaileak.

egiten dugula antibiotikoen erabilera, animalien ongizatea bermatzeko jardunbideak martxan ditugula eta eskaintza ekologikoen alde egiten dugula.

Gure bezeroek produktuez goza dezaten ingurumena kaltetu gabe, oinarrizko hiru lan-ildotan jarduten dugu: produktuen jatorri jasangarriaren bermea, tokiko produktuak eta hurbiltasun kontsumoa sustatzea, eta gure marketako ontzien eta produktuen ekodiseinua.

produktu ekologiko genituen; etiketa horien artean, Europako logoa da aipatzeko modukoa. Gainera, 2019an lanean aritu gara produktu ekologikoen marka propioa abiarazteko, eta lehen erreferentziak badaude eskuragarri gure dendetan, 2020. urte hasieratik.

Konpromisoa animalien ongizatearekin

Lurrean dabilzan oiloen arrautzak saltzen ditugu gure dendetan, eta saltzen ditugun guztien % 45 inguru dira dagoeneko. EROSKIIn konpromisoa hartua dugu 2024rako denda sare osoan saltzen diren arrautza guzti-guztiak ezaugarri horretakoak izateko.

Animalia ongizatearen Welfair™ ziurtagiri berri bat dugu txerri, oilasko eta Aragoiko bildots (ternasco) haragian, EROSKI Natur markarekin. Animal Welfare erakundeak ezartzen dituen estandar zorrotzak gainditu behar izaten dituzte horretarako, besteak beste elikaduraren, bizilekuaren, osasunaren eta jokabide naturalaren arloan. EROSKI Natur oilaskoak, halaber, European Chicken Commitment ziurtagiria eskuratzeko baldintza guztiak betetzen ditu espezieei, hazkuntzarako sistemaren ezaugarriei eta hilketari dagokienez.

Global G.A.P ziurtagiria dugu akuikulturako EROSKI Natur arrainetan; hala, ongizatea bermatzen duten baldintza zehatz eta zorrotzetan hazi, garraiatu eta hil da.

2006an FSC ziurtagiria duen lehen produktua merkaturatu genuen.





Arrantza jasangarria EROSKIn

Itsaso eta ozeanoetako biodibertsitatearen alde lanean jarraitu nahi dugu, itsas baliabideak arrazionaltasunez baliatuta. Hori dela eta, 2016an EROSKIn arrantza jasangarrirako politika adostu genuen. Gai horretan hartutako konpromisoei erantzunez, 2019an lanean jarraitu dugu arrantza jasangarriaren alde, erreferentziatzko nazioarteko erakundeen eskutik. Aurten ere Marine Stewardship Council (MSC) erakundearen auditoretza gainditu dugu arrakastaz, arrantzategi jasangarrietatik hartutako arrainetarako. Hala, Espainia mailan arrandegi ziurtatuak dituen txikizkako banatzaile handi bakarra gara oraindik. Horrez gain, akuikulturako Global G.A.P. ziurtagiria mantentzen dugu arrainetan. 2019an zehar lanean ibili gara ziurtagiria CAPRABO dendetara zabaltzeko, beraz, 2020an nabarmen handituko dugu ziurtatutako arrandegien eta plataformen kopurua (egun, 342 eta zortzi, hurrenez hurren).

Guztira, jasangarritasun ziurtagiria duten 3.144 tona arrain erosi dira 2019an. Horien artean, 1.880 tona baino gehiagok Marine Stewardship Council (MSC) ziurtagiria zuen, alegia, arrantzategi jasangarrietatik etorriak ziren, eta 820 tonak akuikulturako GGN (GLOBAL G.A.P. Number) zigilua. Kontserben erosketetan, halaber, nabarmentzekoak dira kanaberaz arrantzatutako hegaluzeak (392 tona) eta AENOREn atun arrantza arduratsua (APR) ziurtagiria dutenak (51 tona).

Arrantza-tresna jasangarriagoak erabiltzen saiatzen garenez gero, hitzarmena dugu gure kontserbako atun hornitzaileekin; horren bidez, (Arrantza Jasangarrirako Nazioarteko Fundazioaren (ISSF) printzipioen arabera jarduteko konpromisoa hartzen dute. Soilik arrantza-tresna jasangarriagoak (kanabera, APR, FAD objekturik gabe, MSC eta FIP) erabiliz arrantzatutako atun kopurua handitu egin da; hala, erositako kontserbako atun guztiaren % 30 arrantza jasangarri eta arduratsuaren bidez lortu da. EROSKik bere arrantza iraunkorraren politika sinatu duten hornitzaileekin soilik egiten du lan; horren arabera, hornitzaile horiek ez dute onartzen EBk txartel horia ezarri dien herrialdeetatik datorren atuna, ez baitituzte betetzen Eskualde Erakundeek onartutako neurriak eta ez baitute neurririk hartu legez kanpoko arrantza amaitzeko.

Gure arrantza jasangarriaren politika hamaika printzipiotan oinarrituta dago bai egin martxan ditugun jardunbide egokiak bai etorkizunerako ezarri ditugun erronkak biltzen dituztenak.

Printzipioak eta konpromisoak EROSKIn Arrantza Jasangarriaren aldeko Politikan

Arrantza aparailu eta arrain jasangarriak gure merkataritza eskaintzan

- 1 Arrantza baliabideen jasangarritasuna aintzat hartzea merkataritza eskaintza prestatzean.
- 2 Soilik baimendutako arrantzaleku eta perzetako produktuak merkaturatzea.
- 3 Tamaina txikia dutenak errespetatzea eta gutxieneko tamainaren langa gorago ezartzearen alde egitea.
- 4 Hornitzaileen artean arrantza aparailu jasangarrien erabilera sustatzea.
- 5 Erauzketa arrantzarako MSC (Marine Stewardship Council) zigilua duten produktu jasangarriak sustatzea.

Hornidura katearen jasangarritasuna

- 6 Dendetatik hurbilen dauden kofradiak eta tokiko hornitzaileak bultzatzea.
- 7 Arrantza banatzeko jarduerak ingurumenean duen eragina txikitzea.
- 8 Langileen oinarrizko eskubideak errespetatzen dituzten hornitzaileak aukeratzea, LANERen arrantza lanari buruzko 188. Hitzarmena betez.

Gardentasuna eta gobernantza

- 9 Etiketa eta komunikazio gardena kontsumitzaileekin.
- 10 Arrantza sektoreari eta gainerako interes taldeei entzutea, eta haiekin elkarlanean jardutea.
- 11 Kontsumitzaileei arrantza jasangarriari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
- 12 Gobernantza sistema bat izatea kontrol neurri efizienteekin eta ikuskaritzekin; horrela, sendotu egingo da EROSKik arrantza jasangarriaren alde duen politika.



Ontzi eta bilgarrien ekodiseinua

EROSKIn ondo ezagutzen dugu gizarteak plastikoen kutsadurarekin duen kezka, eta urteak daramagu kutsadura hori txikitzeko jarduerak bideratzen. Geure marka propioa sortu genuenetik, gure produktuen ontziak hobetzeko egin dugu lan, eta 2013an Basque Ecodesign Center-arekin bat egin genuen. Bertan, enpresa pribatuek eta lhobe- Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak ekodiseinuko proiektu berritzaileak abiarazten dituzte; eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU) eta nazioarteko ezagutza zentro liderrekin ere lanean ari gara.

2018an helburu hau ezarri genuen: 2025. urterako gure ontzi guztiak ekodiseinatzea, % 100 birziklagarriak izan daitezen, gehiegizko ontziak kentzea eta bai material birziklatuen bai jatorri jasangarriko materialen erabilera sustatzea. Hori lortzeko, hainbat neurri hartu ditugu, besteak beste, bezeroen artean berrerabilera bultzatzeko ekintzak. Horrela, bezeroari aukera ematen diogu harategian eta arrandegian bere ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko, hala nola, zakote-ontziak edo taperrak. Horrez gain, 2019an sare erako poltsa berrerabilgarri berriak sartu ditugu fruta eta barazkiak soltean erosteko, erabilera bakarreko plastikozko poltsak ordezkatzeko aldera.

Eta horrekin batera produktu freskoak soltean saltzearen alde egin dugu. Gauzak horrela, 2019an ontzia kendu diegu EROSKI Natur produktu hauei: mandarinak, limoiak, mertxika gorria, mertxika horia, nektarina, paraguaiaoa, Eusko label piperra eta Euskal Baserri pipermina. Orain gure fruta eta barazkien % 60 inguru solte eros daiteke. Beste atal batzuetan ere gehiago dira solte eros daitezkeen produktuak; arrandegian, adibidez, % 85etik gora.

Gainera, ahalegina egiten ari gara plastikoen ordez ingurumenean inpaktu txikiagoa duten materialak erabiltzeko. Adibidez, 20 fruta eta barazkitan plastikozko erretiluak kendu eta FSC® ziurtagiria duten kartoizko erretiluak jarri ditugu, iturri jasangarria dutela bermatuz. Fruta eta barazkien atalean egindako hobekuntza hauei esker, 60 tona plastiko baino gehiago kendu ditugu urtean.

Gainera, erabilgarritasunaren edo elikagaien segurtasunaren aldetik ontzietan ezinbestekoak ez diren elementuak kentzen ari gara, eta material birziklatuen erabilera sustatzen dugu, ekonomia zirkularraren ereduarekin dugun konpromisoa betez. Horiek horrela, neurri hauek hartu ditugu, besteak beste: haragi eta arrainen erretiluen plastikoen % 80 baino gehiago birziklatua da, eta horrek esan nahi du erabilera bakarreko 45 tona plastiko kentzen ari garela urtean; opilgintzako erretiluak, poliestirenozkoak, PET % 100 birziklatuarekin ordezkatu ditugu, eta horrekin 250

1997an hasi ginen
poltsa berrerabilgarriak
eskaintzen, eta 2010ean
poltsak kobratzen hasi
ginen; hala, lehen urtean
% 62 murriztu
genuen poltsa
horien kontsumoa.



tona plastiko birjina baino gehiago saihestuko ditugu urtean; halaber, jatorri fosileko plastikozko poltsa, 15 erabilerakoa, plastiko birziklatuarekin (% 55 baino gehiago) egindako poltsarekin ordezkatu dugu.

Kutxa-lerroetako poltsei dagokienez, 2019aren hasieran hainbat neurri jasangarri hartu genituen plastikozko ohiko erosketa poltsa ordezkatzeko. Hortaz, % 55 material birziklatu baino gehiagorekin egindako poltsaz gain, FSC® zigilua duen paperezko poltsa bat ere eskaintzen hasi ginen, % 100 birziklagarria dena; eta poltsa konpostagarria ere bai, landare-jatorriko materialekin egindakoa, gero zabor organikoak botatzeko erabil daitekeena. Irtenbide jasangarri berri horiekin



batera, EROSKIk poltsa berrerabilgarria (% 70 material birziklatuekin eginda dagoena) eta oihalezko poltsa solidarioa (tolesgarria, poltsikoan, poltsan edo autoko gordetegian eraman ahal izateko) mantentzen ditu. Azken horrek, gainera, ingurumenarekiko errespetua eta solidaritatea uztartzen ditu, izan ere, horien salmentarekin lortutako diru guztia kausa solidarioetara zuzentzen dugu.

Ilido horretan, CAPRABOn #proyectoCERES proiektuan parte hartu dugu, Ellen MacArthur Foundation erakundearen ekimena, erabilera bakarreko plastikozko poltsak poltsa konpostagarriekin ordezkatzeko, bai kutxa-lerroetan bai supermerkatuetako ataletan. 2020ko urtarrilean Nafarroako sareko dendetan erabilera bakarreko ohiko poltsa guzti-guztiak kentzen hasi ginen. 2020an zehar, pixkanaka, poltsa horiek kenduko ditugu sareko gainerako saltokietan. Halaber, Europako LIFE programako ReWINE berrikuntza proiektuan ere parte hartu dugu, ardo-botilen berrerabilera errazteko.

Ekintza hauek guztiak gure ibilbide-orriaren hastapenak dira, helburu hauek lortzeko: batetik, 2025 a. urtean ontzietako erabilera bakarreko plastikoa gutxienez % 20 tona murriztea, eta bestetik, 2021ean ontziratutako produktu freskoetan ohiko plastikoa % 21 tona murriztea.

“Fruta eta barazki itsusiak”, elikagaien zarrastelkeriaren kontra

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) emandako datuen arabera, munduan ekoizten diren elikagaien herena zaborretara joaten da.

Urdaibaiko kostaldea garbitzen laguntzen dugu

EROSKiko arrandegiko langileek arrantza jasangarriko proiektuarekin eskuratutako KREA sariaren zenbatekoa eman zioten urpeko kirolak eskaintzen dituen Bermeoko Izaro Sub klubari, Urdaibaiko kostaldea garbitzen laguntzeko. Garbiketa ekainaren 8an egin zen, Ozeanoen Munduko Egunean, itsasoan bukatzen duen eta, horrenbestez, itsasoa kutsatzen duen zabor eta plastiko kopuruarekiko kontzientzia sortzeko helburuarekin.

EROSKIn, nekazaritza sektorearen jasangarritasunarekin eta elikagaien zarrastelkeriaren kontra hartu dugun konpromisoaren alde, itxuragatik edo tamainagatik “itsusi”-tzat jotzen diren fruten eta barazkien barietateak merkaturatzea erabaki dugu. 2019an, guztira, 566 tona fruta eta barazki “itsusi” merkaturatu genituen sarean.

Aitzindariak marka propioko elikagaien ingurumen-adierazpenak argitaratzen

EROSKI izan da marka propioko elikagaien ingurumen-adierazpenak argitaratu dituen kontsumo handiko lehen banaketa katea; adierazpen horiek AENOR GlobalEPD programan egiaztatuta dira, EPD System nazioarteko programak ezarritako Produktuen Kategoría Arauen arabera (PKA). Ingurumen-adierazpenak Euskadiko baserriko arrautzen hornitzaileekin, Euskaber; esne hornitzaileekin, Karrantza Harana ENS; ontziratzeaz arduratzen den Lácteos de Santander enpresarekin; eta Basque Ecodesign Center-ekin elkarlanean egin dira. Euskadiko EROSKI esneak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren esneki jasangarria (“producto lacteo sostenible”) zigilua dauka, eta EROSKI Natur arrautza freskoak lurrean, askatasunean, hazitako oiloenak dira. Proiektu horri esker ekoizleek beren produktuek ingurumenean duten inpaktua ezagut dezakete, eta horien minimizatzeko neurriak har ditzakete. Gainera, kontsumitzaileek ere elikagai horiei buruzko informazio gardena, alderagarria eta frogatua jasotzen dute. Produktuaren ingurumen-adierazpenak argitaratzea da EROSKIk gardentasunarekin eta kontsumitzaileen prestakuntzarekin hartu duen konpromisoetako bat, kontsumo jasangarriagoa bultzatze aldera.

EROSKIn gure produktuen ingurumen profila egiten jarraituko dugu, eta horretarako adituekin eta hornitzaileekin elkarlanean arituko gara, bezeroei ingurumenari lotutako informazioa ematen laguntzeko. Hala, 2019ko martxoaren amaieran ELIKA-PEF proiektua bukatu dugu, eta hurrengoari ekin diogu, EUSKO-PEF proiektuari, AZTiren eta Euskadiko zenbait ETEn partaidetzarekin. Bertan, sistema aurreratu bat garatu dugu Euskadiko elikagaien ingurumen azarna kalkulatzeko, informatzeko eta egiaztatzeko. Proiektuok Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) eta lhobek finantzatu dituzte, 2017an eta 2018an, hurrenez hurren, proiektu ekoberritzaileak sustatzeko. Horri esker, elikaduraren sektorea ekoizpen eredu jasangarriago baterantz hurbilduko da Euskadin, batez ere enpresa txiki eta ertainak, eta ingurumenari buruzko informazio gardenagoa eskainiko da.